



Bigarren eskuko azoka izango da gaur goizean Atsegindegin

HILABETEKO azkeneko larunbata dela kontuan izanda, bigarren eskuko azoka izango da Atsegindegin. Bertara hurbiltzen direnek era guztietako produktuak erosteko aukera izango dute. Azoka goizetik eguerdira izango da, hau da, 10:00etatik 14:00etara. Herritarrek azoka erabiltzen dute behar ez dituzten gauzak saltzeko, horien artean, arropa, erramientak, oinetakoak eta abar. ||

Ekipamenduen inguruko herri galdeketa bihar arte eman daiteke botua

HERNANIN zein azpiegitura edo ekipamendu nahi duten adierazteko aukera ari dira izaten herritarrek aste honetan, eta bihar izango da botua emateko azken aukera. Botua Biteri kultur etxean eman behar da. Gaurko ordutegia da 10:00etatik 13:00etara eta. 16:00etatik 20:00etara; biharkoa berriz 09:00etatik 14:00etara. ||

❖ MANIFESTAZIOA

Bilboko manifestaziora joateko autobusa 15:00etan aterako da

Aste honetan atxilotuak izan diren 34 gazteen senide eta lagunek manifestazioa antolatu dute gaur. Bilbon izango da, arratsaldeko 17:00etan. Amnistiaren Aldeko Mugimenduak autobusa antolatu du Hernanitik, eta arratsaldeko 15:00etan aterako da, Atsegindegitik. Aldez aurretik izena eman behar zen. ||

❖ SANTA ZEZILIA

Kontzertua gaur Sandiusterrin

Kantuz abesbatzak, Udal Txistulari Bandak, Metal Boskoteak eta Ttaria dantza taldeak kontzertua emango dute gaur Sandiusterrin, Santa Zezilia musikarien patriaren omenez. Guztiek batera abestuko dute, Igor Arroyo eta Patxi Apezetxearen zuzendaritzapean. Gaur, arratsaldeko 19:00etan, Sandiusterrin. /2



Kirol ordezkariak ofiziala eskatzeko jaialdiarekin bat Hernaniko kirolariak ere

EUSKAL Herri osoko kirolariak antolatuta, abenduaren 27an Euskal Herriarentzat kirol ordezkariak ofiziala eskatzeko KirolHarria jaialdia egingo da Donostiako Belodromoan. Atzo Hernaniko kirolariak eta ingurutik etorritakoek ere bat egin zuten abenduaren 27ko jaialdiarekin eta dei egin zieten herritarrei bertan parte hartzera. Horrez gain, abenduaren 10ean, osteguna, afaria izango da Hernaniko Txantxangorri elkartearen, ordezkariak ofizialaren alde, punta-puntako kirolari eta sukaldariak. /3

GAUR KRONIKAN

Esne Beltza

gaur Zizurkilen /2

Jasota Bezala /2-3

Laburrak /2

Kirolak: igeriketa, futbola, errugbia... /6

Eskelak /6

'Sunbillatik kantuz kantu' taldea /8

Zinea /8

arrosak
edergintza

Antziola 9
Tel. 943 33 02 89

'Cavita'zioa
Liposukzioaren alternatiba

- Aparatologian azken berrikuntza - Tratamendu pertsonalizatuak

AZAROAN ETA ABENDUAN PREZIO BEREZIAK
Hartu ezazu bonoa orain eta ondo datorkizunean egin ezazu tratamendua

Zatuz eta jaso ezazu behar duzun informazio guztia!

TERMO-SALUD
cavitación

gerria
6 sesio
-2,5 cm

abdomena
6 sesio
-1,6 cm

izterrak
6 sesio
-2,8 cm

URRATS
OINETAKOAK

Kalitatezko aukera zabala !!

Iturriaga, 3 - 943 556 564

ZATUZ
Hernaniko kaxkoan.

❖ SANTA ZEZILIA KONTZERTUA GAUR

Kantuz-ek, txistulariek, metal boskoteak eta Ttarla dantza taldeak ikuskizuna emango dute gaur

Denak elkar hartuta, Igor Arroyo eta Patxi Apezetxearen zuzendaritzapean, elkarrekin abestuko dituzte abesti batzuk. Arratsaldeko 19:00etan izango da, Sandiusterrin.

SANTA Zezilia kontzertua emango dute gaur Kantuz abesbatzak, Hernani eta inguruko txistulariek, Metal Boskoteak eta Ttarla dantza taldeak. Igor Arroyo eta Patxi Apezetxearen gidaritzapean ariko dira denak elkar hartuta. Gaur izango da kontzertua, Sandiusterrin, arratsaldeko 19:00etan.

Errepertorio zabala

Besteak beste, txistulariek honako piezak joko dituzte:

Deika, Neskatxarena, Alkate soinua eta La Pilandros.

Abesbatzak berriz, honakoak abestuko ditu: *Belle qui tiens ma vie, Maitia nun zira, Ojos brujos, Zure boza, Caminito eta Nahi zuya yin.*

Guztiak elkar hartuta

Emanaldia elegante bukatzeko, pare bat kanta elkarrekin eskainiko dituzte, biak ala biak hunkitzeko modukoak: *Baldorba eta Ikusten dugu goizean.* ||



Guztiak elkar hartuta ariko dira gaurkoan.

'Esne Zopak' proiektu berria aurkeztuko du Esne Beltza taldeak gaur Zizurkilen

Aurrera tabernan izango da aurkezpena. Aurretik, Leitzan, Ereñotzun eta Larrarte sagardotegian grabatutako pelikula emango dute; hernaniar asko azaltzen dira irudietan.

ESNE Beltza taldeak diska berria grabatu du, *Esne zopak*, eta gaur dute zuzeneko lehenengo emanaldia Zizurkilgo Aurrera tabernan, gaueko 22:30etan.

Atzo aurkezpena

Atzo aurkeztu zuten diska jendaurrean eta prentsaurrean, Donostian, baina lehenengo emanaldia gaur izango da. Datorren astetik aurrera salgai izango da dendetan.

Hernaniarrek ere badute partea

Diska berriari *Esne zopak* jarri diote izena, tartean Esne Beltzako kideez gain, beste partaide batzuk ere badituelako. Letrak, esate baterako, Ion Maia, Iker Zubeldia eta Hernaniko Jon Garmedia *Txuriak* eginak dira. Horrez gain, pelikula txiki bat ere grabatu dute DVDan, Leitzan, Ereñotzu eta Larrarte sagardotegian.

Hain zuzen, sagardotegian afora egin zuten urria hasieran, eta bazter guztietako irudiekin grabatu dute. Xabier Solanoren esanetan, «hernaniar mordoska azaltzen da DVDan».

Trikiti doinu gordinak

Diskan betiko trikitixa doinuak entzun daitezte, trikitia eta panderoa gordingorin. ||



Solano diska berriarekin atzo.

❖ KONTZENTRAZIOA

Inkomunikazioa

salatzeko

Asteartean atxilotutako zenbait gaztek oraindik inkomunikatuta jarraitzen dute eta inkomunikazioak iraun bitartean kontzentrazioa izango da Sandiusterrin 12:00etatik 12:15etara Hernaniko Udaleko, Ongintzako

eta Kiroldegiko LABeko sail sindikalak deituta. ||

❖ ANBOTO TABERNA

Mus azkarra gaur

Anboto tabernan mus azkarra antolatu dute gaurko. Arratsaldeko 16:00etan hasiko da. Izena bertan eman behar da. Lehenengo lau bikoteentzat

izango dira sariak. ||

❖ GARIN TABERNA

'Rude-Kanka' ren kontzertua gaur

Gaur gaueko 23:30etatik aurrera kontzertua izango da Garinen. Rude-Kanka taldea arituko da reggae-a eta antzeko musika jartzen. ||

❖ GOIZ EGUZKI

'La tonta del bote' pelikula gaur

Goiz Eguzkin, gaur arratsaldeko 18:00etan, *La tonta del bote* filma jarriko dute. Besteak beste, Lina Morgan, Arturo Fernandez, Mary Francis eta Jose Sacristan ariko dira aktore lanetan. ||

❖ ITURRITXO ELKARTEA

Reikia dirua biltzeko

Latsunbeberri eta Marieluts auzoko Iturritxo elkartearen reiki saioak eskainiko dituzte gaur egun osoan zehar. Hiru ordu laurdeneko saioak izango dira 10 euroren truke. Helburua da sosak biltzea Katmandun umezurtzak hartzen dituen monastegi batera bidaltzeko. ||

Vanesa eta Miguelo Harategia

ORDUTEGI BERRIA
OSTIRALA 27
09:00 - 13:30 eta 17:00 - 20:00
LARUNBATA 28
09:00 - 14:00 eta 18:30 - 21:00
IGANDEA 29
10:30 - 14:00

AURREZ EGINDAKO JANARIAN (PLATOS PRECOCINADOS)
AUKERA ZABALA!!!...ETA ENKARGUZ:

Oilaskoa 6,00€ !!!

Larramendi, 17 - HERNANI Enkarguetarako: 943 55 03 32

JOSU ALKORTA harategia

JABUGORIK ONENA...
..BENETAKO JABUGOAI!

Nafar kalea 11 Tel.: 943 551 681

➡ **Jasota Bezala**

• Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izen-abizenak, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa • Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira • Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Agindutakoa ahaztu, ez baikaude hauteskunde garaian

Aste honetan Hernanin erroldatuta gaudenok lehendabiziko aldiz Udalaren urratsak bideratzeko aukera daukagu. Parte-hartze prozesuak eman dioguna eman du, eta hiru proposamena artean erabakitzeko ordua iritsi da.

Nire lehen hausnarketa honetaz da, erabakitzeko gaitasunaz. Politika orokorrean PPK eta PSEk gaitasun hori kendu digute, tamalez herrigintzan EAJk eta H1k ere ostu digute, baita EB-Aralarrek ere. Adierazgarria izan da, Estatuari eskatzen diote guri galarazten digutena. Kontsultari bere mamia kendu nahi diote. Zertarako bozkatu emaitza ez bada beteko? Zorionez, Gobernu Taldekoek esan dute herriaren hitza beteko dutela, baldintza bakarrekin: gutxienez herritarren %20k parte hartzea. Nire ustez, ez da zentzugabeko baldintza. Beraz, herritarrok erronka bat dugu, gutxieneko kopurua gainditzea.

Udal aldizkariaren azken alea irakurrita, beste ondorio bat atera dut: ez gauden hauteskunde garaian, kulturak ez du etekinik ematen. Gobernu Taldeak izan ezik, beste zinegotzi guztiak (PPren isiltasunarekin) herritarren erabakia baldintzatzen dute, hautatua izan daitekeen proiektuaren finantziazioa zalantzan jartzen dute. Eta horrela, herritarren aurrean, Kultur Gunearen aukera desegokia bezala aurkezten dute.

Beste alde batetik, joan den Udal Hauteskundeetan Kultur Aretoari buruz esandakoa gogorarazi nahi diet zinegotzi batzuei. Fernandinok "jende gehiago hartuko dituen areto bat behar da. Azpiegituretan lehentasunak galdeketa bidez jarri behar dira" azpimarratu zuen; Angladak uste zuen "azkar konpondu beharreko gabezia bat dela"; eta Amonarraizek "auditorio bat egin nahi dugu (...) ezinbestekoa da auditorio egoki bat edukitzea." Hitz haiek promesa hutsak izan ziren?

Hori dena ikusita, nire erabakia hartu dut eta oso kontzienteki Kultur Gunearen alde bozkatu dut. Zergatik?

Lehenik, orain Udal Gobernuan daudenek edozein proiektu martxan jartzeko konpromisoa hartu dutelako (eta, gainera, aukera bakar bat ez dute bultzatu eta ezta gutxietsi ere). Bigarren, udal oposizioak Kultur Guneko aukera ez du aurrera eramango; lan gehiegi eskatzen duelako, hasteko finantziarioa bilatzen. Hirugarren, kultur munduko hernaniarrek merezi dutelako, euren lana eskertzeko eta bultzatzeko. Laugarren, eta pisuzkoak, Hernanin bizi garenok gure kultura aberasteko tresna garrantzitsua izango delako.

Dudarik gabe, beste proiektu guztiak beharrezkoak dira, baina gaur egungo Gobernu Taldekoen lan gaitasuna aprobetxatu behar dugu zailena egiteko. Oraindik haien proiektu guztiak martxan daude, eta kajoian ez dute proiektu bakar bat sartu.

Edonola ere, zein hautatuko den baino garrantzitsuagoa da %20ko parte hartzea gainditzea, aterako den erabakia gauzatzeko. Horretarako zure botoa erabakigarria da, aprobetxatu!

Iñaki Lorenzo Quintela



Euskal Herriko kirol ordezkariak ofiziala eskatzeko jaialdiarekin bat egin dute Hernaniko kirolariek ere

Abenduaren 27an KirolHarria izeneko jaialdia izango da Donostiako Belodromoan, zazpi lurraldeetako kirolariek antolatuta. Abenduren 10ean afaria izango da Txantxangorri.

KIROLARI mordoa elkartu zen atzo Hernaniko frontoian, abenduaren 27an Euskal Herriaren ordezkariak ofizialaren alde egingo den jaialdira joateko deialdia luzatzera.

Euskal Herriko bazter guztietako kirolariek bat egin dute eta idatzi bat kaleratu dute. Idatzian lau ideia nagusi biltzen dira: batetik, Euskal Herriak ordezkariak ofiziala izateko eskubidea aldarrikatzen da; bestetik, ordezkariak

horretan zazpi herrialdeetako kirolariek lekua izatea eskatzen dute; hirugarrenik, euskal ordezkariak nazioartean lekua izatea eskatzen dute; eta azkenik, kirolariek, Euskal Herria aintzat hartuta, elkarrekin antolatu ahal izatea, eskatzen dute.

Abenduaren 27an jaialdia Belodromoan

Abenduaren 27an, aurreneko aldiz zazpi lurraldeetako kirolariek antolatuta, jaialdi

haundia izango da Donostiako Belodromoan. Atzo Hernaniko kiroldegian bildutako kirolari guztiek dei egin zuten jaialdian parte hartzeko. Kirola nagusi izango da abenduko jaialdian, baina horrez gain, bertsoak, musika eta antzerkia ere izango dira, baita sorpresaren bat ere.

Asmoa da Euskal Herria ardatz izango duen gune baten aldarrikapena egitea. 17:30etan hasiko da.

Abenduaren 10ean afaria

Txantxangorri elkartean

Abenduaren 10ean Hernaniko Txantxangorri elkartean afaria izango da, goi mailako kirolariek eta goi mailako sukaldarien eskutik. Alberto Rodriguez Dana Onako sukaldari burua eta Xabi Gorrotxategi Casa Julianeko sukaldaria izango dira afaria ematen.

Txartelak datorren astean jarriko dituzte salgai Hernanin. II

Jasota Bezala

• Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izen-abizenak, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa • Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira • Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Hernaniar maiteak:

(...) Hona etortzen diren kazetariak ordu batzuk grabatzen dituzte eta ondoren minutu batzuetan laburbiltzen dute hemengo egoera eta gure lana. Beraiek erabakitzen dute pasatzen dena.

Telebistako programa ikusi zenutenok gure umeak ikusteko aukera izan zenuten afalondorengo gau batean. Familia baten etxera iristen garenean, kasu honetan, Tsegazab, Goytom, Meseret, Tedi eta Yordanosen etxea, bizilagunak bisitara batu ziren. Orduerdiko hizketaldiaren, gainbegiratua... ondoren, Yordanosek eta Fiorik giroa aldatu zuten errezitaldi batekin eta jarraian izan ziren abestiak, poemak eta dantzak. Guztia giro alai, eroso eta naturalean. (...) Bost haur hauen ama, Enkubahari, orain dela 6 urte hil zen. (...) Beraiek, beste hainbat familia umezurtz bezala, lasaitasunaren, adimenaren, batasunaren eredu dira.

Zuen laguntza halako etxe askotara heltzen da, dela janari bidez, dela koarderno, botika, mini-kreditu, errenta... bidez. 1.200 umezurtzen eta ama gaixorik duten 300 umeren konfiantza izaten jarraitzen dugu.

(...) Etiopiako leku ezberdinetan egon diren lagunak azaldu izan didate umeekin bizitako esperientzia izugarria dela, gizatasunez betetakoa. Eta opari hau egunero eskaintzen digute, hemen Wukron, gure haur eta gazteek, ematen ari direla jakin gabe.

Beraien izenean, eta nirean, gure eskerrik beroena bidaltzen dizuet. Eta ausartzen naiz esatera, harrotasunez ikusiko zenuketeela zuen babesarekin lortzen ari garena.

Jainkoak bedeinka zaitzate.

Angel Olaran



BERRIAK

HERNANIKO MERKATARIEN
ETA OSTALARIEN ELKARTEA

Hernanik
kronika

Balantxa eta Hernani Bidaiak-ek
sariak jarriko dituzte.
Biharko alean
zehaztuko ditugu.

Hirugarren saskia betetzen hasi gara!!!

Aste honetan saskirako jaso diren sariak:

- URUMEA FERRETERIA: Sukaldeko laban joko.
- FELY MODA eta ETXEA: Alborno bat.
- ZITU INFORMATIKA: Ofimatika ikastaroa.
- AMEGAR ETXE TRESNAK: MP4a (Fm, ekualizadorea, kanpoko altaboza, USB, ahots grabagailua...)

Errifak salgai 1 €-an
Berriak elkarteko
establezimenduetan
eta Hernaniko
Kronikako
banaketa puntuetan

Zozketa:
abenduaren 19an,
Biterin, 12:00etan.



Asetu ederra hartu dute goizuetarrek aurtengo Azaro Kulturalean

Herritar guztien neurriko ekitaldiak antolatu dituzte eta herria erabat murgildu da kultur ekintzetan.

Alaitz Eskudero Bergara

Badira urte mordoska Goizuetako kultur taldeak Azaro Kulturalean antolatzen duela. Aurtengoan ere, indartsu joan da, hainbat ekitaldi egin baitira bukatzera doan 2009ko azaroan zehar.

Arte erakusketa Labaderoan

Urriaren bukaera eta azaro hasieran, Hernaniko Dobera Euskara Elkartearen eskutik, arte erakusketa egon zen herriko Labaderoan. Ikusmin handia sortu zuen herritarrengan eta hainbat eta hainbat izan ziren Labaderora hurbildu zirenak artelanak ikustera.

Kuko, Truko eta Bolenwaider

Azaroaren 7an, Udaletxeko Ganbaran pailazo hauen bisita izan genuen. Ekitaldi hau Nafarroako Gobernuaren eskutik datorren Udazkeneko Bira izeneko antzerki, musika, zinema eta folklore programaren barruan dago, berrehun eta mila arteko biztanle kopurua duten herrientzat antolatua. Jendea oso gustora atera zen pailazoen emaldetik. Beste egun batean 'Perez Sagutxo 2' pelikula jarri zuten Udaletxeko Ganbaran eta 60 lagun inguru elkartu ziren filma ikustera.

Umore Ona elkarte sendo

Amabirjinetan "Umore ona" peñaren 50garren urteurrena ospatu bazen, orain "Umore-ona" elkartearen 25garren urteurrenako ospakizunek hartu dute erreleboa. 247 bazkide biltzen dituen herriko elkarte bakarrak, badu zer ospatua, 25 urte hauetan makina bat ekintza egin baitira elkarte honen izenean. Izen bera daramate herriko pilota eskolak, dantzari taldeak, abesbatzak eta areto futboleko taldeak.

Pilota eskola, izen handiko pilotarien kabi izandakoa, Angel Salaberriaren gidaritzapean, astero-astero entrenamentuetan jarduten duena. Txapelketa bat baino gehiagotan oso emaitza onak jasotzen ari dira pilotariak.

Dantza taldean adin desberdinetako herritar ugari biltzen dira. Azken urteetan indar handia hartu du festetako dantza ekitaldiak.

Abesbatza 2006ko irailean sortu zen eta 50 kide inguru ditu orain. Geroztik taldea beti prest dago herriko edozein festatan kantari aritzeko. Beraien izenak argi uzten duen bezala, herriko korua beti prest umore ona herrian zabaltzeko.

Urte batzuk pasa dira herrian futbito taldea genuenetik. Denbora luzez futbito talderik egon gabe, 08/09 denboraldian herriko mutil talde bat elkartu zen futbitoan jolasteko Gipuzkoako ligako 3. mailan. Ikaragarria izaten da herrian jokatzaren diren partiduetan eskoletako frontoian sortzen den giroa, eta aurkako talde asko bat datoz esanez, Umore Ona «oso talde gogorra» dela herrian jokatzaren duenean.

25garren urteurrena

Azaroak 21ean, talde guzti hauek elkartu ziren Umore Onaren urteurren festa ospatzeko. Talde guztiak argazkia atera ondoren, pilota eskolako pilotarien arteko partidua izan ziren, ondoren dantzariak egin zuten emaldia eta hunkigarria izan zen abesbatzako kideen ahotsaren erritmora dantzatutako aurrekua. Azkenik, eguneko ekitaldi desiratuenetakoa iritsi zen: Umore Onako lehengo taldekideek, hauetako batzuk 13 urtetan baloirik ukitu gabeak, gaur egungo taldearen aurkako



Pailazoak, pilota partidua eta aizkolariak izan dira, besteak beste, Azaro Kulturalean. Jende asko bildu da ekitaldietara.

partidua jokatu zuen. Ia taldekide gehienak elkartu ziren egun honetan. 2004tik espetxean dagoen Iñigo Elizegiren askatasuna eskatzeko argazkia egin ondoren, bera ere futbito taldeko jokalaria baitzen, partiduari ekin zioten. Tentsioa handia izan zen,

eta beteranoenek sasoiaren jarraitzen dutela erakutsi bazuten ere, gazteenak izan ziren garaile 5-3 emaitzarekin.

Jaiari bukaera emateko, herriko trikitilariekin kalejira egin ondoren, egun handi honetako partaide guztiak Umore Ona elkartearen afaldu

zuten; mus partida eta kantuek afalondoa luzatu zuten. Umore ona nagusi elkartearen urtebetetzean!

Aizkora eta txinga frogak

Hurrengo egunean, Goiko Frontoian zegoen hitzordua, Euskal Herriko 3. Mailako Aizkolari Txapelketako eta Euskal Herriko Emakumezkoen Txinga Txapelketako finala ospatzen zela eta. 33 aizkolari 6k zuten lortua Goizuetako finalerako txartela, eta azkenean Arkaitz Olano, 19 urteko leitzarrak irabazi zuen txapela, oso lehia estuan. Lehenbiziko 3 sailkatuek 2garren mailan jokatu dute hurrengo urtean.

Emakumezkoen Txinga Txapelketan Esther Iriarte Narbartearen lortu zuen txapela, bigarrenari 17 plaza atera eta lehiaketako marka berria ezarrita. Txapelketa leporaino betetako Goiko frontoian jokatu zen, 400 ikusleren begiradapean.

Atzo Xalto eguna eskolan

Urtero bezala, San Andres egunaren bezperatan, eskolari izena ematen dion herriko bertsolariaren omenezko eguna ospatu zen eskolan. Andres Narbarte Xalto ezinez ezagunagoa, bertsolaria zen eta famatu egin zen 1962ko Euskal Herriko bertso txapelketa nagusian, Fabiola erregina nor zen jakin ez, eta hala moduz erantzun zuen puntu bategatik.

Gaur egun, Goizuetako eskolan Xalto eguna ospatzen da, bertsolaritzaren inguruko ekitaldiak burutuz. Atzo ikasleek "Inaxito, galtzagarrirei to!" antzerkia ikusi ahal izan zuten goizean, eta ondoren bertso antzerkia eta bertso eskolako ikasleen emaldia eta bertso paper lehiaketako sari banaketa izan ziren arratsaldean. ||

HERNANI POLIS

mugitu zure fitxa mueve ficha

Hernaniko ekipamendu berriak lehenesteko

herri kontsulta Consulta ciudadana

para la elección del equipamiento municipal prioritario en Hernani

Bozketaren egunak Periodo de votación
Azaroak 23-29 Noviembre
Biteri Kultur Etxea

Kultur Gunea
Centro Cultural

Igerilekua
Piscina

Gudarien eta Tilosen plaza eraberrituak
Reformar Gudarien plaza y los Tilos

hernani
www.hernanipolis.net



Azaro kulturala gaur bukatuko da Goizuetan, feri egunarekin. Bisitariak eta laguntzaileak espero dituzte eta herri osoa aterako da kalera gaur egungo produktuak eskaintzera eta garai bateko ohiturak gogora ekartzera.

Feri eguna gaur Goizuetan

Jendetza bilduko da gaur Goizuetan azaroko azken larunbateko feri egunean

FERI eguna da gaur Goizuetan. Seigarren edizioa du aurten goiz artisau eta ganadu feriak. Orain dela 30 bat urte arte azaroko eta abenduko azkenengo larunbatetan feria izaten zen, eta hori dela eta, 2004an feri eguna berreskuratzeko gogoratu zitzaion "Goizueta Bizirik" plataformari, eta baita asmatu ere! Urtetik urtera jende gehiago erakartzen baitu azaroko azken larunbateko Feri egunak. Azoka plazan izango da, baina deskuido batean euria egingo balu, frontoian jarriko dute.

Goizean azoka

Goiz osoan zehar artisau postuak, nekazal produktuak eta azienda feria izango dira. Bertako produktuak erosteko aukera izango da. Ez hori bakarrik. Bitarte horretan, gazta nola egiten den ikusteko aukera izango da; talo postua izango da; eta sagardoa egiteko toleara ere bai, aurrez aurre ikusteko sagarra jotzen, eta nahi izanez gero, sagardoa probatzeko ere bai. Jexux Mari Belako ere lanean ariko da joarek egiten jende aurrean.

Dena ez denez begiratzea, nahi duen guztiak txinga lehiaketa herrikoian parte hartzeko aukera izango du, eguerdiko ordubatek aurrea, plazan.

Koltxoiak berritzen eta ardi zakurrak lanean

Azoka goiz osoan zehar izango da eta iraun bitartean bestelako ikuskizunak ere izango dira.



Goizuetarrak gorotza zabaltzen aritu ziren joan den urtean, garai batean egiten zen moduan.

11:00etan, edadean aurrera joandakoek ikuskizun polita eskaintzeko asmoa dute: garai bateko artilezko koltxoiak kalera atera eta bertan berrituko dituzte; horretarako ireki, artilea astindu eta pastorrotzekin txukun-txukun josteko asmoa dute. Ikastolako patioan egiteko asmoa dute.

Ardi zakur erakustaldia ere izango da Barrenitxeko belasoan; Aranoko Ansa eta Goizuetako Maisubordako Olaziregi ariko dira, ardi txakurrak lagun, ardiak nola gobernatu erakusten.

Iratze meta nola egiten den ikusteko aukera

Duela bi urteko erakustaldi ikusgarria ere emango dute aurten Artantxuko Juan Mari goizuetarrak eta beste lagun

batek. Goiz osoan zehar iratze meta nola egiten den erakutsiko dute.

Bazkari jendetsua

Goiko frontoian babarrun platerkada ederra eta plazan erretako zekorria jan ahal izango dute ia 500 lagunek. Horregatik, auzo lanean, Hernaniko eta Oiartzungo jendea izango da bertan bazkaldarrei otordua ematen. Dagoeneko bazkaritako txartelak erretiratu dituzte baina norbaitek interes berezia balu, Amaia kafetegian galdetu dezake. Bazkalondoa soinuaz alaiturik egongo da, lehenbizi frontoian eta ondoren Urrutinek atarian.

Egun osoko jai izanik, egunak luze joko du, horregatik, ilunabarrean zurrutaz gain, mokaduren bat egiteko

aukera ere izango da; horretarako, lau herritar kalean jarriko dira, borondatearen truke pintxoak saltzen.

Kontzertuak Gaztetxean

Ilunabarreko 19:00etan Gaztetxean *Sindrome de Parker* eta *The Zepo* talde Hernaniarren kontzertua izango da. Egitarau hori bukatzen bada ere, seguru festa ordu txikiak arte luzatuko dela!

Xalto bertso sariketaren finala

Feri egunarekin batera, Udaltzeko Ganbaran Xalto Saria bertso sariketako kanporaketa eta finala jokatuko dira, aurten formatu eraberrituan. Goizeko 11:00etan kanporaketa jokatu da Ganbaran eta arratsaldean finala izango da. ||

Koltxoiak zaharberritzen

GARAI batean bezalaxe, gaur artilezko koltxoi zaharrak kalera atera eta zaharberritu egingo dituzte. Artilezko koltxoi asko ez da izango gaur egun, baina daudenak ondo aprobetxatzen dituzte Goizuetan. Orain hain modan jarri den berrerabiltzea garai batean, gauzak nolana botatzen ez ziren garaian, natural nola egiten zuten erakutsiko dute. ||

► Gaur Goizuetan

10:00etatik aurrera, artisau postuak, nekazal produktuak eta azinda feria.

Bitartean, artisau produktuak egiten ikusteko aukera: Talogileak, gaztagileak, joaregileak...

10:45etan, sagardo egileak. Sagar jotzea jendaurrean eta sagardo probatzea.

11:00etan, Koltxoiak zaharberritzeko lana.

11:30etan, Ardi zakur lehiaketa. Barrenitxeko belason.

13:00etan, txinga lehiaketa.

Goiz osoan zehar, herriko trikitilariak.

14:30etan, Herri bazkaria. Goiko frontoien.

Bazkalondoren, Musika. Goiko frontoien.

19:00etan, Kontzertuak: 'The Zepo' eta 'Sindrome de Parker'. Gaztetxean.

TELEMAR

Elkano kalea 13 - Nagusia 7 - HERNANI -

☎ 943 33 26 00 - 943 55 33 99

40 urteko esperientzia antenak jartzen

ANTENA ETA DEFINIZIO HANDIKO TELEBISTETAN ESPEZIALIZATUAK

egokitu zure antena TDTr, bestela ezingo duzu telebista ikusi

125 EGUN GELDITZEN DIRA TELEBISTA ANALOGIKOAREN APAGOIRAKO

eskatu aurrekontua inongo konpromezurik gabe

Telebista TDTr-ekin 179€tik aurrera. Puntako markak.



TELEMAR-en

40. URTEBETETZEAN

PREZIO OSO BEREZIAK

ZATOZ ETA KONTSULTA GAITZAZU!!

◆ IGERIKETA

Olatz Altunak urrezko domina lortu du eta Mañel Aizpuruak brontzezkoa, Espainiako txapelketan

Txapelketa Castellón ari da jokatzeko, ostegunean hasi zen eta probak igandera arte izango dira. Bertan dira Olatz Altuna, Mañel Aizpuru eta Maitane Danborena igerilari hernaniarrak.

IGERILARI hernaniarrak hasi dira denboraldi berriarekin, eta hiru, Olatz Altuna, Mañel Aizpuru eta Maitane Danborena Castellón dira, Espainiako Neguko Txapelketan parte hartzen.

Olatz Altunak eta Mañel Aizpuruak ostegunean izan zuten aurreneko proba, eta biek

emaitza bikainak lortu zituzten.

Olatz Altunak 4x50 metro libreko proban hartu zuen parte, Bidasoa taldeko beste hiru igerilariarekin, eta urrezko domina lortu zuen. Lau igerilarien artean, 1:41:16ko denbora egin zuten, eta horrez gain Altunak txapelketako errekorra lortu zuen, bere 50 metroetan 24,69ko

denbora eginda.

Mañel Aizpuruak ere 4x50 metroko proban hartu zuen parte, eta brontzezko domina lortu zuen. Aizpuruak Bardulia taldeko beste hiru igerilariarekin egin zuen proba eta 1:28:44ko denbora egin zuten. Bere 50 metroetan 21:96ko marka egin zuen. ||

◆ FUTBOLA

Azkenaren kontra jokatu du gaur Hernanik

Vasconia izango du aurrean, 15:30etan, Herreran.

BURUA altxatzeko aukera bikaina izango du gaur Hernanik, Vasconia-aren kontra jokatu baitu. Txuri berdeek, nahiz eta ahaleginak egin, ez dituzte hiru puntuak lortzen. Gaurkoan ordea, sailkapen na-

gusian azkena dijoan taldearen kontra jokatu dute; beraz, aukera ezin hobea dute.

Partidua Herreran izango da, normalean baino ordubete lehenago, hau da, 15:30etan hasita. ||

◆ ERRUGBIA

Getxon jokatu du gaur Hernanik

Partidua Faduran izango da, 16:00etan.

HERNANIKO errugbi taldea lider da Oho-rezko B mailan, eta aurreneko itzulia hala bukatzea du helburu. Gaurko partidua Getxon izango dute, etxeko taldearen kontra. Orain arteko partidua guztiak irabazita, hel-

buru berarekin abiatuko dira Bizkaialdera. Hala ere, Rafa Larretxeak adierazitakoaren arabera, ez da partidua erraza izango. Getxo sailkapenaren behe aldean badago ere, mailaz igotzea helburu duen taldea da. ||

◆ PELOTA

Gipuzkoako txapelketako partiduak jokatu dituzte gaur Hernaniko pelotariak

Hernaniko pelotariak osteguneko partiduak izango dituzte gaur, Gipuzkoako txapelketakoak: infantiletan, Añorga/Suharri Rodriguez, 16:00etan, Añorgan; Añorga/Ekaitz Cisneros, 16:00etan, Herreran; Aiatz Hernani/Hondarribi, 16:00etan, Hondarribin; Lizardi/Mikel Perez, 16:00etan, Igeldon; Intza/Hodei Noble, 16:00etan, Urnietan; eta Patxi Agirrezabala/Urnieta, 16:00etan, Urnietan. Jubenil mailan, Eneko Lujanbio/Usurbil, 16:00etan, Urnietan. Nagusietan, Ezeiza-Esnaola/Aurrera Saiaz, 16:00etan, Hernanin. Eta paletan, Manzidor-Lukas/Orio, 16:00etan, Hernanin; eta Irazustabarrena-Gutierrez/Pagola-Semper, 16:00etan, Hernanin. ||

◆ ARETO FUTBOLA

Yone Boutique Tolosako Tolardiren kontra

Yone Boutique areto furbol taldeak Tolosako Usabal kiroldegian jokatu du gaur, Tolargi taldearen kontra. Hernaniarrak 3garren postuan daude, eta Tolosakoak 4garrenean; hortaz, ez da partidua erraza izango. Gaur, 16:00etan hasita. ||

Aidurrek Garcia7ren kontra jokatu du

Aidurrek ere gaur jokatu du, baina Hernanin. Aurrean Garcia7 taldea izango du. Azken bi partiduak galdu ostean, irabazteko aukera ona da hernaniarrentzat, ez baitira aurkari zailak. Gaur 16:15. ||

◆ SASKIBALDIA

Teklan hernanik Biok taldearen kontra jokatu du, gaur, kiroldegian

Senior mailan jokatu duen Teklan Hernani taldeak Biok taldea izango du gaur aurkari, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, kiroldegian. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatu dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA				PELOTA-Gipuzkoako Txapelketa			
Erengoial Oho-rezko Maila	Vasconia-Hernani	Herreran	Gaur 15:30	Infantilak	Añorga-Suharri Rodriguez	Añorgan	Gaur 16:00
Infantilak	Vasconia-Hernani	Mañel Aizpuru	Gaur 16:00	Infantilak	Añorga/Suharri Rodriguez	Herreran	Gaur 16:00
Jubenila. Lehenengo maila	Pati Olatz-Hernani Real Tenis	Derruasari	Gaur 15:30	Infantilak	Aiatz Hernani/Hondarribi	Hondarribin	Gaur 16:00
Jubenila. Lehenengo maila	Hernani Inbourn	Zubipen	Gaur 11:30	Infantilak	Lizardi/Mikel Perez	Tjelkua	Gaur 16:00
Jubenila. Lehenengo maila	Eas 08-Hernani	Herreran	Gaur 19:15	Infantilak	Intza/Hodei Noble	Urnietan	Gaur 16:00
Kadeteak. Oho-rezko maila	Sanse-Hernani	Etxe Garmen	Gaur 09:00	Infantilak	Patxi Agirrezabala/Urnieta	Urnietan	Gaur 16:00
Kadeteak. F 11	Hernani Real Union Club	Zubipen	Gaur 12:15	Infantilak	Ignatzi/Usurbil	Hernanin	Gaur 16:00
Infantilak. Oho-rezko maila	Atrasate Hernani	Mujategin	Gaur 12:00	Infantilak	Ezeiza-Esnaola/Aurrera Saiaz	Hernanin	Gaur 16:00
Infantil Txiki	Hernani-Zaratuz	Zubipen	Gaur 10:30	Paleta	Manzidor-Lukas/Orio	Hernanin	Gaur 16:00
SASKIBALDIA				ERRUGBIA			
Seniorrak	Hernani-Biok	Hernanin	Gaur 18:00	Oho-rezko B maila	Getxo-Hernani	Faduran	Gaur 16:00
Jubenilak	Hernani-Tolosako	Izola	Gaur 16:00	Jubenilak	Elbor Hernani	Unben	Gaur 11:00
Kadeteak	Hernani-Tolosako	Pako Ioldin	Gaur 16:00	Infantilak	Onduiz-Hernani	Aietan	Gaur 10:30
Kadeteak	Hernani-Uberri	Hernanin	Gaur 10:00	Infantilak	Elbor Hernani	Aietan	Gaur 10:30
ARETO FUTBOLA				ERRUGBIA			
2.maila	Tolargi-Yone Boutique	Tolosan	Gaur 16:00	Infantilak	Onduiz-Hernani	Aietan	Gaur 10:30
3.maila	Aidurre-Garcia7	Kamileguren	Gaur 15:15	Infantilak	Hera Hernani-Hernani	Aietan	Gaur 10:30
				Alebinak	Elbor Atrasate Hernani	Aietan	Gaur 10:30
				Alebinak	Zaratuz-Hernani	Aietan	Gaur 10:30

LEHENENGO URTEBETETZEA

† Carmen Aranburu Etxenike

ANDREA
(Fidel Mugicaren alarguna)

2008ko azaroaren 12an hil zen Hernanin, 96 urte zituela,
Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta.

-Goian bego-

Seme-alabak: Emeri (Jose Zapirainen alarguna), Mari Carmen eta Felipe Arbelaitz, Pepa eta Jose Mari Martinez; bilobak: Fidel eta Esperanza, Susana eta Koldo, Edu, Ane (†), Igor, Iban, Iñigo eta Bakartxo, Leire eta Igor eta Xabi; birlobak: Iñigo eta Ane; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **BIHAR, IGANDEA**, eguerdiko **12:00etan**, **JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den Urtebetetzeko Mezara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2009ko azaroaren 28an

Helbidea: Elizabko, 32 - 1. Santinea ebexa.

FUNERARIA
ORBEGOZO
ERRAUSKETAK

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com



ORBEGOZO
FUNERARIA

TANATORIO · BEILATOKIA

- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

Zentrala HERNANI
Latxunbe, 7


HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

Aurrera egin



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



 kutxa



ADEGI



CAMARA DE GIPUZKOA
KAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO HAZIUNTZA
KAMARA DE GIPUZKOA



Ayuntamiento de San Sebastián

gipuzkoa aurrera


Aurrera egin, elkarrekin.

Gipuzkoa Aurrera aliantza publiko-pribatutik elkarlanean ari gara,
indarrak eta ahaleginak batuz.

Gipuzkoa guztiaren ginetik dagoelako.

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● DYA: 943 464622 ● Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 - 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
✚ FARMAZIAK ● Egumez: Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022 ● Gauez: Castilla Urbieta 7 - 943 552941

EGURALDIA **GAUR** Hego-mendebaldeko haize zakarra izango da hizpide. Ur-dingune politak ere izango dira egun osoan. Temperatura igo egingo da. **BIHAR** Euria eta hotza egingo du. Egurditik aurrera, haizea ipar-mendebaldetik sartuko da eta zaparrada haundiak izango dira. Elurra 1.000 m-tik behera. (euskalmet)



'Sunbilatik Kantuz Kantu' taldeak aurreneko diskoa kaleratu berri du

Euskal kantu tradizionalak biltzen ditu diskoak. Garin eta Oindin da salgai.

SAN Joanen bueltan, azken bi urteetan Garinera hurbildu denak ezagutuko du ziurrenik *Sunbilatik Kantuz Kantu* taldea. Harizko instrumentuak gainean, ahotsari garrantzia emanda, euskal kantu tradizionalak jo eta abestuta giroa jartzen ibiltzen den laukoteak osatzen du taldea: Hondarribian bizi den Antton Erauzkin zaldibiarak (ahotsa eta ahoko soinua), Beasainen bizi den Jon Zubeldia aramarrak (gitarra eta hotsa), Juan Carlos Sasso egun Astigarragan bizi den eta Hernanin bizitu izan den argentinarrak (gitarra, banjoa eta kadakinoa) eta Egoitz Maia zumaierak (baxua eta koraok).

Laukoteak beraien aurreneko diskoa kaleratu berri du. Betiko kantuak izan arren, «ukitu pertsonala» ematen dietela azaldu dio Zubeldiak Kronikari.

7 abestiko diskoa 6 euroan 15 abesti grabatu bazituzten ere, disketxeekin izandako arazoak direla eta, 7 abestiko diskoa kaleratu dute azkenean. Garin eta Oindi tabernetan



Betiko kantuak izan arren, ukitu berezia ematen saiatzen da laukotea.

daude salgai 6 euroan. Gainera, kontzertu bat ematekotan dira Oindin bertan. Gainerako abestiekin osatutako beste diskoa udara inguruan ateratzeko asmoa dute eta beraiek sortutako bi kantu ere izango ditu.

Sunbilatik... Zumaiera Taldearen izena nondik datoren galdetuta, hala azaldu du Erauskin: «Jon eta ni aspaldiko lagunak gara eta orain dela 30bat urte ere kantuan ibiltzen ginen elkarrekin. Denborarekin utzi egin genuen eta orain dela

hiru bat urte hasi ginen berriz. Nik Sunbilan ostalaritza eta kanping negozioa nuen eta Jon bixitan etortzen zen. Kantuan aritzen ginen eta egun batean Zumaiaiko koardila batekin kantuan bukatu eta hurrengo baterako geratu ginen Zumaian bertan».

Orduan batu zitzaizkien Sasso eta Maia. Orduan bertan entsaiatzen dute astean behin, eta emanaldiak ia astebururo dituzte herri ezberdinetan. Orain gainera, Argentina dute helburu. ||

❖ ZINEA

'Agora' helduentzat eta 'Noche en el museo 2' adin guztietarako

Alejandro Amenabarrek zuzendutako *Agora* pelikula jarriko dute asteburu honetan helduentzat; gaur, 19:30etan eta 22:30etan; eta bihar, 19:30etan. Nahi duen guztiarentzat berriz, *Noche en el museo 2* jarriko dute, fantasiako komedia. Gaur eta bihar, 17:00etan.

❖ ASTIGARRAGA

Erraustegiaren kontra egingo den manifestazioan parte hartzeko deia

Gipuzkoako Erraustetaren Aurkako Plataformen Koordinadora sinadura biltzen aritu zen hondakinen inguruko euskal legearen proposamena eztabaidatzeko. Horretarako 35.000 sinadura bildu dituzte eta Legebiltzarrean ez dituzte aintzat hartu. Hori salatzeke eta «erraustetarik gabeko politika parte hartzaile eta anitzaren alde» manifestazioa antolatu dute Donostian, gaur, Astigarragako Erraustegiaren Aurkako Plataformak dei egin die herritarrei manifestazioan parte hartzeko. Manifestazioa arratsaldeko 17:00etan abiatuko da, Boulebardetik. ||

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Lokala alokatzen da kale Nagusia, 50.zkia. Entrepilanta da. 17m2 ditu, komuna eta labarboia.

Deitu: 943 55 03 37 / 943 27 78 51

Ski denboraldirako pisua alokatzen da Jacan. Hiru logelakoa eta garajearekin. Deitu: 610 34 66 48

Etxe bila nabil, 2-3 gela dituen. Lehenbailehen sartzeko. Pertsona arduratsua naiz.

Deitu: 638 349 760

Pisua salgai Karabelen. 60m2, 2 logela, sala, sukaldia eta komuna. Kafetaria badu. Berritua.

Deitu: 626 479 038

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, prezio egokituak eta pertsonalizatuak. Gaztetzeko tratamendua "Fotorejuvenecimiento", Dieta personalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafoterapia, kiropraxia, errelefo ajustea eta berbrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

BALANTXA ELEKTROGAILUAK

berritu zaituzte
renove plana!!

NAGUSIA, 17 - 943 33 40 22

HEZETASUNA KENTZEKOA



% -3

ERABILI EZAZU
BERRIAK
TXARTELA

